

Azkenean heldu ziren erregeak bere lagun ihiztariak zituen toki-
ra. Denek berehala xapela kendu zuten beren erregea agurtuz.

Erregeak baserritarrari galdegin zion :

- Zer? Nor da beraz guzien artean, erregea?
- Ez dakit zaldun jauna, zu edo ni, biak bakarrik baikaude, toki honetan, xapela burutik kendu gabe!

Erein argitaletxeko *Kilikolon 2* liburutik egokitua.

1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Zer erraiten dio baserritarrak erregeari?
- Nora eraman du zaldunak? Eta zertako?
- Nola asmatuko dute zein den erregea?
- Xapela kendu zuten jendeak zer ziren?
- Nola bururatzen da kondaira? Amaiera latza dea? Irrigarria? Lotsagarria?
- Zure ustez nola ihardetsi zion erregeak baserritarraren azken erranari?

2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

- Hitz hauek oro irakurgaietan ageri dira, bi salbu. Kopia itzazu eta testutik kanpo diren biak ingura.

baserritarra

zaldia

xapela

ehiztariak

erregea

ilargia

makila

oihana

zalduna

- Taula honetako hitzak **-tar**, **-dun** edo **-tsu** atzizkiez osa itzazu.

bizar....

huri....

herri....

Bidarrai....

xapel....

Euskal....

baserri....

hodei....

mendi....